# Enpresan praktikak egiteko programa

2025 · 2026ko deialdia

**10** plaza

# Programa de prácticas en la empresa

Convocatoria 2025 · 2026

**10** plazas

BILBOKO PORTUA ETA ITSASADARRA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN PUERTO Y RÍA DE BILBAO

## Sustatzailea: Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioa

## Promueve: Fundación Puerto y Ría de Bilbao

### Helburuak

**Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioaren helburu nagusia, arlo soziokulturalerako eta aisialdirako interes orokorreko planak eta ekintzak sustatzea eta garatzea da, haien bidez Bilboko Portuak eta Bilboko itsasadarrak gaur egun eta historian zehar itsasertzeko udalerrien garapen ekonomikoan eta sozialean eta haien integrazioan izan duten garrantzia hobeto ezagutzeko, baita portu-sektoreko berrikuntzarekin lotutako proiektuak eta ekimenak sustatu eta garatzea ere.**

### Objetivos

La Fundación Puerto y Ría de Bilbao tiene como objetivo promover y desarrollar planes y actuaciones de interés general con una amplia proyección sociocultural y recreativa, que permita un mejor conocimiento de la relevancia presente e histórica del Puerto de Bilbao y de la propia Ría de Bilbao en el desarrollo económico y social e integración de los municipios ribereños, así como el fomento y desarrollo de proyectos e iniciativas vinculadas a la innovación en el sector portuario.

### Xedeak

**Fundazioaren helburuak hauek dira: Bilboko Portuaren ondare historiko, kultural eta ekonomikoa ikertzea, kontserbatzea eta zabaltzea; berrikuntzan, hobekuntza teknologikoan eta portu-sektorearen lehiakortasunean aurrera egiteko aukera emango duten proiektuak, jarduerak, azterlanak, ekimenak eta ikerketak bultzatzea, sustatzea eta/edo garatzea; dirulaguntzak, laguntzak edo finantza-laguntzak ematea barne; lankidetza- eta babes-hitzarmenak egitea gizarte-, kultura- edo kirol-arloetan; portu-sektoreetako biltzarrak, jardunaldi teknikoak, mintegiak eta prestakuntza-ikastaroak antolatzea; argitalpenak prestatzea, eta portu-esparruan prestatzeko bekak eta laguntzak ematea.**

### Fines

Los fines de la Fundación son: investigar, conservar y difundir el legado histórico, cultural y económico del Puerto de Bilbao; promocionar, fomentar y/o desarrollar proyectos, actividades, estudios, iniciativas o investigaciones que permitan avanzar en la innovación, en la mejora tecnológica y en la competitividad del sector portuario, incluyendo el otorgamiento de subvenciones, asistencias o ayudas financieras; realizar convenios de colaboración y patrocinio en los ámbitos sociales, culturales o deportivos; organizar congresos, jornadas técnicas, seminarios y cursos de formación dentro de los sectores portuarios; elaborar publicaciones, y conceder becas y ayudas para formación dentro del ámbito portuario.

# Praktiken finantziaketa

**Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioak finantzatuko ditu praktikak, modalitatea edozein dela ere, eta lankidetza-hitzarmenak sinatuko ditu beste Fundazio batzuekin eta Trebakuntza-ikastetxe publiko eta/edo pribatu batzuekin.**

**Hori dela eta, programan sartzeko lehentasuna izango dute Fundazioaren patronatukide diren itsasertzeko udalerrien batean bizi direnek:**

| | | |
|---|---|---|
| **Barakaldo** | **Bilbo** | **Erandio** |
| **Getxo** | **Leioa** | **Portugalete** |
| **Santurtzi** | **Sestao** | **Zierbena** |

**Balorazio-irizpide hauen arabera erabakiko da zer praktikaldi-kopuru esleitu udalerri bakoitzari:**

- **Biztanle-kopurua**
- **Langabetuen % guztira**
- **Langabezian dauden gazteen %**
- **Beste zenbait**

# Financiación de las prácticas

La financiación de las prácticas, cualquiera que sea su modalidad, será por cuenta de la Fundación Puerto y Ría de Bilbao, formalizando acuerdos de colaboración con otras Fundaciones y Centros de Formación, públicos y/o privados.

Por ello, tendrán prioridad para su acceso al programa quienes tengan su domicilio en alguno de los municipios ribereños, patronos de la Fundación:

| | | |
|---|---|---|
| Barakaldo | Bilbao | Erandio |
| Getxo | Leioa | Portugalete |
| Santurtzi | Sestao | Zierbena |

La atribución en número de prácticas que le pudiera corresponder a cada municipio estará relacionada con los siguientes criterios de valoración:

- Número de habitantes
- % total de desempleados/as
- % de jóvenes en desempleo
- Otros

# Praktikak egiteko tokia eta iraupena

**Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioaren Patronatuko kideen arteko lankidetza-hitzarmenaren barruan, praktikaldi guztiak Bilboko Portuko Agintaritzaren sailetako arlo funtzionaletan egingo dira. Hain zuzen ere, Portuko Agintaritzak emango ditu praktikak behar bezala egiteko behar diren baliabide material eta didaktiko eta tutoretzako baliabide guztiak.**

# Lugar de desarrollo y duración

En el marco de la colaboración entre los miembros del Patronato de la Fundación Puerto y Ría de Bilbao, todas las prácticas se desarrollarán en las áreas funcionales de los distintos departamentos de la Autoridad Portuaria de Bilbao, quien pondrá a disposición del Programa todos los recursos materiales, didácticos y de tutoría para el normal desenvolvimiento de las prácticas.

**Eskainitako plazetako praktiken iraupena 8 hilabetekoa izango da 2025eko urritik aurrera, eta astean 25 ordu egingo dira, astelehenetik ostiralera, goizez.**

**Mondragon Unibertsitateko MYGADE - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduko ikasleentzako plazak esleitu dira dagoeneko. Pertsonetako bat 2024ko irailean hasi zen lanean, eta 2026ko urtarrilera arte jarraituko du. Bestea 2025eko irailean hasiko da lanean, eta 2026ko uztailean amaituko du praktikaldia.**

La duración de las prácticas de las plazas ofertadas será de 8 meses a partir de octubre de 2025, y se llevarán a cabo 25 horas semanales, de lunes a viernes, en horario de mañana.

Las plazas para estudiantes del Grado MYGADE - Administración y Dirección de Empresas de la Universidad de Mondragon, ya han sido asignadas. Una de las personas se incorporó en septiembre de 2024 y continúa hasta enero de 2026. La otra se incorporará en septiembre de 2025 y finalizará su período de prácticas en julio de 2026.

## Onuradunak eta deitutako plazak

**Deitutako praktikaldi-kopuruaren eta erlazionatutako arlo funtzionalen arabera eska dezakete programan parte hartzea:**

**a) Aukeratzen den praktikaldiari dagozkion unibertsitate-ikasketetan edo Goi-mailako Heziketa-zikloetan titulua duten gazteek, baldin eta nahitaezko baldintzak betetzen badituzte. Besteak beste, hauek:**

- **30 urte baino gutxiago izatea.**
- **Ikasketak bukatuta izatea.**
- **Trebakuntzari lotutako esperientzia kualifikaturik ez izatea.**
- **Aldez aurretik lan-praktiken beka bat jaso ez izana.**

**b) Euskara eta ingeles maila egokia izatea, emango zaien funtzio-arloaren arabera.**

**2025-2026rako praktikaldi-kopurua hamar (10) da, eta Bilboko Portuko Agintaritzari dagokio banaketa, modalitate batean eta bestean. Horrez gain, hautagaiak aukeratzeko azken prozesua gidatuko du.**

## Beneficiarios/as y plazas convocadas

Podrán solicitar su participación en el programa de prácticas conforme al número de prácticas convocadas y a las áreas funcionales relacionadas:

a) Jóvenes titulados/as en estudios universitarios o en Ciclos Formativos de Grado Superior correspondientes a la práctica a la que se opta y que cumplan determinados requisitos obligatorios, entre otros:

- Ser menor de 30 años.
- Tener concluidos los estudios.
- No contar con experiencia cualificada relacionada con su formación.
- No haber disfrutado con anterioridad de una beca en prácticas profesionales.

b) Aquellos/as que dispongan de un nivel adecuado de euskera e inglés, según área funcional de destino.

El número de prácticas convocadas para el periodo 2025-2026 es de diez (10), correspondiéndole el reparto, en una u otra modalidad, a la Autoridad Portuaria de Bilbao, que además dirigirá el proceso final de selección de candidatos/as.

## Lankidetza-hitzarmena

**Novia Salcedo Fundazioarekin eta Mondragon Unibertsitatearekin hitzarmenak egin dira, eta, horien bidez, Portuko Agintaritzak konpromisoa hartu du erakunde horien arauak zaindu eta errespetatzeko, praktiketara sartzeko baldintzei, dokumentazioari, eskatzen diren egiaztapenei eta ziurtagiriei, laguntzen zenbatekoei eta onuradunen kudeaketa-izapideei dagokienez.**

## Acuerdo de colaboración

Se establecen acuerdos con la Fundación Novia Salcedo y Mondragon Unibertsitatea, por los cuales la Autoridad Portuaria se compromete a preservar y respetar las normas de estas instituciones en cuanto a requisitos de acceso a las prácticas, documentación, acreditaciones y certificados que se requieran, cuantías de las ayudas y trámites de gestión de los/as beneficiarios/as.

## Konpentsazio ekonomikoak

**Programa honetan parte hartzen dutenek konpentsazio ekonomiko hau jasoko dute ikasteko laguntza gisa:**

**Onuradunek, unibertsitate-tituludunek edo goi-mailako heziketa-zikloetako tituludunek, 810 euro gordin jasoko dituzte hilean, Novia Salcedo Fundazioko plazen kasuan eta, Mondragon Unibertsitateko plazen kasuan, hitzarmen markoaren arabera.**

**Programan parte hartzen duten pertsonen "estatusa" bekadunena izango da, eta, beraz, ez dute inolako lan-loturarik izango Bilboko Portuko Agintaritzarekin, praktikaldiak irauten duen bitartean.**

## Compensaciones económicas

La compensación económica que, en concepto de ayuda al aprendizaje, percibirán las personas que participen en este programa será:

Las personas beneficiarias, titulados/as Universitarios/as o de Ciclos Formativos de Grado Superior, percibirán 810 euros brutos mensuales, en el caso de las plazas de la Fundación Novia Salcedo y, en el caso de las plazas de Mondragon Unibertsitatea, según el convenio marco establecido.

El "status" de las personas participantes del Programa será el de becarios/as y, por tanto, no tendrán vinculación o relación laboral alguna con la Autoridad Portuaria de Bilbao durante el periodo de duración de las prácticas.

## Eskaerak nola formalizatu

**Hauek dira eskaerak formalizatzeko prozedurak:**

**Eskaerak Novia Salcedo Fundazioaren eta Mondragon Unibertsitatearen bidez formalizatuko dira, horretarako eskatzen den dokumentazioa betez.**

**Informazio gehiago behar izanez gero, mezu elektroniko bat bidali behar da (isancho@bilbaoport.eus helbidera) edo telefonoz deitu 94 487 12 00 zenbakira (astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 12:00etara). Kontaktu-pertsona: Itziar Sancho.**

## Formalización de las solicitudes

Los procedimientos para la formalización de las solicitudes son los siguientes:

Las solicitudes se formalizarán a través de la Fundación Novia Salcedo y Mondragon Unibertsitatea cumplimentando la documentación exigida al respecto.

Cualquier información adicional podrá solicitarse enviando un e-mail (isancho@bilbaoport.eus) o llamando al teléfono 94 487 12 00 (lunes a viernes, de 09h. a 12h.). Persona de contacto: Itziar Sancho.

.

## Izena emateko epea

**Eskaerak jasotzeko epea 2025eko irailaren 26an itxiko da.**

## Programan onartutakoen ebazpena

**Praktika-programan parte hartuko duten pertsonak izendatzeko ebazpena Bilboko Portuko Agintaritzako ebaluatzaile-taldeak berak erabakiko du, hautagaiaren gaitasunak aztertu ondoren eta egin beharreko praktiken arabera, ebaluazio hobea lortzeko proba egokiak egin ahal izango ditu.**

**Era berean, Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioak praktikak esleitu gabe utzi ahal izango ditu, erabat edo partzialki, edozein eratako ustekabeko arrazoiengatik edo ekimen hau funtsean mugatzen duten arrazoiengatik.**

## Onuradunen betebeharrak

**Praktika-aldian, parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute, programari dagozkion zereginez gain, beren prestakuntzarako osagarritzat eta egokitzat jotzen diren jarduerak egiteko, betiere aldez aurretik instruktorearen eta tutorearen artean adostu baldin badira.**

**Halaber, Bilboko Portuko Agintaritzako instruktore bat izango dute, eta hark, Giza Baliabideen eta Antolaketa Sailarekin batera, praktiken jarraipena egingo du, praktiken ziurtagiriak eta txostenak eginez.**

## Plazo de inscripciones

La entrega de solicitudes al programa se cerrará el 26 de septiembre de 2025.

## Resolución de admisiones al programa

La resolución por la que se designa a las personas participantes en el programa de prácticas se realizará discrecionalmente por el equipo de evaluadores de la Autoridad Portuaria de Bilbao una vez consideradas las capacidades del candidato/a y conforme a las prácticas a desarrollar, pudiendo realizar cuantas pruebas considere oportunas para una mejor evaluación.

Asimismo, la Fundación Puerto y Ría de Bilbao podrá declarar desierta, total o parcialmente, la adjudicación de las prácticas, por causas imprevistas de cualquier naturaleza, o que limiten sustancialmente esta iniciativa.

## Obligaciones de las personas beneficiarias

Durante el periodo de prácticas los/as participantes se comprometen a desempeñar, además de las tareas correspondientes al programa, aquellas actividades que previa consideración entre instructor/a y tutor/a se consideren complementarias y oportunas para su formación.

Dispondrán asimismo de un/a Instructor/a de la Autoridad Portuaria de Bilbao, quien realizará junto con el Departamento de Recursos Humanos y Organización, el seguimiento de las prácticas, emitiendo los certificados e informes de las mismas.

| **Saila-dibisioa** / Dpto.-división | **kop.** / nº | **Arlo funtzionala** / Área funcional | **Titulazioa** / Titulación | **Orr.** / Pág. |
|---|---|---|---|---|
| **Osasun, Segurtasun eta Ingurugiroa** Salud, Seguridad y Medio ambiente | 1 | **Industria/Lan Segurtasuna** Seguridad Industrial/Laboral | **Kimikako Gradua; Kimikako, Ingurumeneko eta Industria Antolaketako Ingeniaritza; Lan Arriskuen Prebentzioko Masterra** Grado en Química; Ingeniería en Química, en Medio Ambiente u Organización Industrial; Máster en Prevención de Riesgos Laborales | 9 |
| **Plangintza, proiektuak eta eraikuntza** Planificación, proyectos y construcción | 1 | **Plangintza eta Proiektuak** Planificación y proyectos | **Ingeniaritza Zibileko, Meatzeen eta Energien Teknologia, edo Geomatikaren eta Topografiaren Ingeniaritza Gradua, edo beste batzuk** Grado en Ingeniería Civil, Tecnología de Minas y Energías, o Ingeniería en Geomática y Topografía u otras. | 11 |
| **Eraldaketa Digitala** Transformación Digital | 1 | **Garapena, Sistemak eta Bezeroarentzako Zerbitzua** Desarrollo, Sistemas y Servicio al Cliente | **LH ASIR, DAM, DAW; Kudeaketaren Ingeniaritza Informatikoko edo Ingeniaritza Informatikoko Gradua** FP ASIR, DAM, DAW; Grado en Ingeniería Informática de Gestión o en Ingeniería Informática | 13 |
| **GGBB, Antolaketa** RRHH, Organización | 1 | **Garapena eta Jasangarritasuna** Desarrollo y Sostenibilidad | **Lan Harreman, Psikologia, Soziologia, Zuzenbide, Ekonomia edo Administrazio eta Enpresa Zuzendaritzako Gradua** Grado en Relaciones Laborales, Psicología, Sociología, Derecho, Economía o Administración y Dirección de Empresas | 15 |
| **Komunikazioa** Comunicación | 1 | **Komunikazioa** Comunicación | **Publizitateko, Marketineko edo Komunikazioko Gradua** Grado en Publicidad, Marketing o Comunicación | 17 |

| **Saila-dibisioa** / Dpto.-división | **kop.** / nº | **Arlo funtzionala** / Área funcional | **Titulazioa** / Titulación | **Orr.** / Pág. |
|---|---|---|---|---|
| **Merkataritza eta Marketina**<br>Comercial y Marketing | 1 | **Garapen komertziala eta intermodalitatea**<br>Desarrollo Comercial e Intermodalidad | **EAZko, Itsas Zuzenbideko edo Kanpo Merkataritzako Gradua**<br>Grado en ADE, Máster en Derecho Marítimo o Comercio Exterior | 19 |
| **Sistemak eta Kudeaketa-Kontrola**<br>Sistemas y Control de Gestión | 1 | **Sistemak eta Kontrol-sistemak**<br>Sistemas y Control de Gestión | **Unibertsitate-titulazioa, kudeaketa-sistemen ezagutza**<br>Titulación universitaria, conocimientos de sistemas de gestión | 21 |
| **Idazkaritza Nagusia eta Zerbitzu Juridikoak**<br>Secretaría General y Servicios Jurídicos | 1 | **Erregistroa**<br>Registro | **Dokumentuen Kudeaketako edo Bibliotekonomiako Goi Mailako Gradua**<br>Grado Superior en Gestión Documental o Biblioteconomía | 23 |
| **Bilbao PortLab** | 2* | **Bilbao PortLab** | **MU - MYGADE - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua**<br>Grado MU - MYGADE - Administración y Dirección de Empresas<br>**MU - MYGADE - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua**<br>Grado MU - MYGADE - Administración y Dirección de Empresas | 25 |

**** Mondragon Unibertsitateko MYGADE - Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduko ikasleentzako plazak esleitu dira dagoeneko. Horietako bat 2024ko irailean hasi zen lanean, eta 2026ko urtarrilera arte jarraituko du. Bestea 2025eko irailean hasiko da lanean, eta 2026ko uztailean amaituko du praktikaldia.***

** Las plazas para estudiantes del Grado MYGADE - Administración y Dirección de Empresas de la Universidad de Mondragon, ya han sido asignadas. Una se incorporó en septiembre de 2024 y continúa hasta enero de 2026. La otra se incorporará en septiembre de 2025 y finalizará su período de prácticas en julio de 2026.*

# Osasun, Segurtasun eta Ingurugiro Saila. Plaza 1

## Sailaren helburuak

- **Bilboko Portuko Agintaritzaren Osasun, Segurtasun eta Ingurugiro alorreko estrategiak definitu eta garatzea.**

## Praktiken deskribapena

**Programan parte hartuko duen pertsonak Industria/Lan Segurtasuneko arlo funtzionalean kolaboratuko du.**

# Departamento de Salud, Seguridad y Medio ambiente. 1 plaza

## Objetivos del departamento

- Definir y desarrollar las estrategias en materia de Salud, Seguridad y Medio Ambiente de la Autoridad Portuaria de Bilbao.

## Descripción de las prácticas

La persona participante en el programa colaborará en el área funcional de Seguridad Industrial/ Laboral.

## Industria/Lan Segurtasun Arloa

- **Laneko arriskuen prebentzioaren (LAP) eta industria-segurtasunaren arloko araudiaren kudeaketan eta jarraipenean laguntzea.**
- **Larrialdietarako planen jarraipena egitea, Larrialdiak Kontrolatzeko Zentroarekin koordinatzea eta simulazioetan parte hartzea.**
- **Gorabeheren kudeaketan laguntzea.**
- **Itsasoko kutsaduraren aurkako neurriak ezartzen eta horien jarraipena egiten laguntzea, itsasoko ingurumena babesten lagunduz.**
- **Txostenak, estatistikak eta dokumentazio teknikoa egitea.**
- **Portuko langileentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainetan laguntzea.**
- **Isurketen prebentziorako eta kudeaketarako protokoloak gainbegiratzen laguntzea.**

Deitutako plazak

**Plaza bat, 2025eko urritik aurrera, 8 hilabeteko iraupenarekin.**

Betekizunak

- **Kimikako, Ingeniaritza Kimikoko, Ingurumen Zientziako edo antzeko Gradua, Ingurumen Antolaketako Ingeniaritza edo Lan Arriskuen Prebentzioko Masterra izatea.**
- **Erabiltzaile mailako informatika – ezagutza izatea (Word, Excel eta PowerPoint).**

## Área de Seguridad Industrial/Laboral

- Apoyo en la gestión y seguimiento de la normativa en materia de prevención de riesgos laborales (PRL) y seguridad industrial.
- Seguimiento de los planes de emergencia, coordinación con el Centro de Control de Emergencias y participación en simulacros.
- Apoyo en la gestión de incidencias.
- Colaboración en la implementación y seguimiento de medidas anticontaminación marina, contribuyendo a la protección del medio ambiente marítimo.
- Elaboración de informes, estadísticas y documentación técnica.
- Apoyo en campañas de sensibilización y formación para el personal del puerto.
- Apoyo en la supervisión de protocolos para la prevención y gestión de vertidos.

Plazas Convocadas

Una plaza a partir de octubre de 2025, con una duración de 8 meses.

Requisitos

- Estar en posesión del Grado en Química, Ingeniería Química, Ciencias Ambientales o afines, Ingeniería en Organización ambiental o Máster en Prevención de Riesgos Laborales.
- Informática a nivel de usuario (Word, Excel, Powerpoint).

# Plangintza, Proiektuak eta Eraikuntza Saila. Plaza 1

## Sailaren helburuak

- Portu-eremuan azpiegitura berriak planifikatzea, diseinatzea eta proiektatzea, bai eta lehendik dauden azpiegiturak handitzea eta/edo hobetzea ere, une bakoitzeko beharren arabera.
- Portuko azpiegiturei (kaiak, babes-dikeak, ibilgailu-bideak, tren sarbidea, eraikinak, ro-ro arrapalak, etab.) eragiten dieten arazoak ikuspuntu teknikotik konpontzeko lanak eta azterketak egitea.
- Aipatutako proiektuen espedienteak izapidetzea dagokien administrazio eta erakundeen aurrean, behin betiko onar ditzaten. Halaber, proiektuen ingurumen-ebaluaziorako izapideak egitea, behar izanez gero.
- Obra zibileko kontratuen lizitazioetan parte hartzea, baldintza teknikoen agiriak eginez eta lizitatzaileen eskaintza teknikoak baloratuz.
- Urteko inbertsioen plangintza egitea.
- Gauzatzen ari diren obra-kontratuen gainbegiratze eta zuzendaritza teknikoa, Inbertsio Planaren arabera, Bilboko Portuko Agintaritzaren elkarreragingarritasun logistikoa garatzeko eta hobetzeko; horretarako, portuko azpiegitura berriak eraikiko dira, kaiko zabalguneak eta lurrerako sarbideak.
- Dragatze-lanen plangintza, gauzatzea eta zuzentzea, Bilboko Portuko Agintaritzaren zerbitzugunean kai berriak sortzeko edo kalatuak mantentzeko.

# Departamento de Planificación, Proyectos y Construcción. 1 plaza

## Objetivos del departamento

- Planificar, diseñar y proyectar nuevas infraestructuras en el ámbito portuario, así como ampliaciones y/o mejoras de las infraestructuras existentes, según las necesidades de cada momento.
- Desarrollar trabajos y estudios para dar soluciones, desde un punto de vista técnico, a los problemas que afectan a las infraestructuras del puerto (muelles, diques de protección, viales rodados, accesos ferroviarios, edificios, rampas ro-ro, etc.).
- Tramitar los expedientes de los referidos proyectos ante las administraciones y organismos afectados para la aprobación definitiva de los mismos. Realizar, asimismo, los trámites de evaluación ambiental de proyectos, si fuera necesario.
- Participar en las licitaciones de contratos de obra civil elaborando los pliegos técnicos y valorando las ofertas técnicas de los licitadores.
- Planificar las inversiones anuales.
- Supervisión y dirección técnica de los contratos de obras en ejecución, conforme al Plan de Inversiones en el desarrollo y mejora de la interoperabilidad logística de la Autoridad Portuaria de Bilbao mediante la construcción de nuevas infraestructuras portuarias, habilitación de explanadas de muelle y de accesibilidad terrestre.
- Planificación, ejecución y dirección de las obras de dragado para mantenimiento de calados o generación de nuevos muelles en la zona de servicio de la Autoridad Portuaria de Bilbao.

# Praktiken deskribapena

**Hautatutako pertsonak zeregin hauek izango ditu:**

## Plangintza eta Proiektu Arloa

- **Ingeniaritza Zibileko proiektuen ohiko egitura ezagutzea.**
- **Portu-azpiegituren diseinuan eta kalkuluan laguntzea.**
- **Lehen aipatutako proiektuak osatzen dituzten eranskinak idazten eta garatzen laguntzea.**
- **Egin nahi diren jarduketen norainokoa planoetan ezagutzea.**
- **Beharrezkoak diren beste dokumentu tekniko batzuk garatzen laguntzea, hala nola azterlanak, aurreproiektuak, txostenak…**
- **Zerbitzu, hornidura eta obren lizitaziorako baldintza teknikoen orriak ezagutzea.**
- **Oinarrizko ezagutza teknikoak eskuratzea eta garatzea, bai ingeniaritza zibil orokorreko kontratuak gauzatzeko eta haien segimendua egiteko, bai itsasoko eta portuetako obrak egiteko, bai haiei lotutako plangintza tekniko-ekonomikoarekin integratzeko.**
- **Obra publikoko kontratuak garatzeko esparru juridiko-administratibo propio eta espezifikoa ezagutzea.**
- **Ingeniaritza zibilaren arloan lan profesionalak egiten dituzten lantaldeetan sartzea.**

### Deitutako plazak

**Plaza bat, 2025eko urritik aurrera, 8 hilabeteko iraupenarekin.**

### Betekizunak

- **Ingeniaritza Zibileko, Meatzeen eta Energien Teknologiako Ingeniaritzako, edo Geomatika eta Topografiako Ingeniaritzako Gradua; edo besteren bat izatea.**
- **Informatika, erabiltzaile-mailan (Word, Excel, PowerPoint eta Autocad).**

# Descripción de las prácticas

La persona seleccionada se responsabilizará de las siguientes tareas:

## Planificación y proyectos

- Conocer la estructura típica de los proyectos de Ingeniería Civil.
- Colaborar en el diseño y cálculo de infraestructuras portuarias.
- Colaborar en la redacción y desarrollo de los anejos integrantes de los proyectos anteriormente mencionados.
- Conocer en planos el alcance de las actuaciones que se pretenden acometer.
- Colaborar en el desarrollo de otros documentos técnicos requeridos como estudios, anteproyectos, informes…
- Conocer pliegos técnicos para la licitación de servicios, suministros y obras.
- Adquirir y desarrollar conocimientos técnicos básicos en la ejecución y seguimiento tanto para contratos de ingeniería civil general, como de forma particular para obras marítimo-portuarias, así como su respectiva integración con la planificación técnico-económica asociada.
- Conocer el marco jurídico-administrativo propio y específico en el desarrollo de los contratos de obra pública.
- Integrarse en equipos de trabajo que desarrollen tareas profesionales en el campo de la ingeniería civil.

### Plazas Convocadas

Una plaza a partir de octubre de 2025, con una duración de 8 meses.

### Requisitos

- Estar en posesión del Grado en Ingeniería Civil, en Ingeniería en Tecnología de Minas y Energías, o en Ingeniería en Geomática y Topografía; u otras.
- Informática a nivel de usuario (Word, Excel, PowerPoint y Autocad)

# Eraldaketa Digitalaren Saila. Plaza 1

# Departamento de Transformación Digital. 1 plaza

## Sailaren helburuak

- **Sailak zeharka kudeatzen ditu Bilboko Portuaren behar teknologikoak. Arloaren barruan, itsasontzien eta salgaien portuko mugimenduarekin lotutako zerbitzu digitalak kudeatzen eta koordinatzen dira, eragiketa osatzen duten erakunde guztiekin batera.**

## Objetivos del departamento

- El Departamento gestiona de forma transversal las necesidades tecnológicas del Puerto de Bilbao. Dentro del área se gestionan y coordinan los servicios digitales vinculados al movimiento de buques y mercancías en el puerto, junto con todas las entidades que integran la operativa.

## Praktiken deskribapena

**Programan parte hartzen duenak Eraldaketa Digitalaren sailean lagunduko du, Garapena, Sistemak eta Bezeroarentzako Zerbitzua atalaren barruan, eta zeregin hauetan lagunduko du:**

## Descripción de las prácticas

La persona participante en el programa colaborará en el departamento de Transformación Digital, dentro del área Desarrollo, Sistemas y Servicio al Cliente, dando apoyo en las siguientes tareas:

**EAZri eta Sistemei eguneroko zereginetan lagunduz, hauekin:**

- **Port Community Systems (PCS).**
- **Eportuko zerbitzuekin lotutako gorabeheren azterketan, segimenduan eta kudeaketan parte hartzea.**
- **Eportuko proba-inguruneetan zerbitzuen garapenak testatzea eta baliozkotzea.**
- **Dagozkion hobekuntza funtzionalak identifikatu, definitu eta horien diseinuan eta ezarpenean parte hartzea.**
- **Sistemen funtzionamendu eta mantentze egokia baliozkotzea.**

Acompañando al CAU y a Sistemas en las tareas del día a día con:

- Port Community Systems (PCS).
- Participar en el análisis, seguimiento y gestión de incidencias relacionadas con servicios de eportua.
- Testear y validar desarrollos de servicios en los diferentes entornos de pruebas de eportua.
- Identificar, definir y participar en el diseño e implantación de las mejoras funcionales que procedan.
- Validar el correcto funcionamiento y mantenimiento de los sistemas.

## Deitutako plazak

**Plaza bat, 2025eko urritik aurrera, 8 hilabeteko iraupenarekin.**

## Betekizunak

- **Sareko Informatika Sistemen Administrazioko (ASIR), Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapeneko (DAM) edo Web Aplikazioen Garapeneko (DAW) Goi Mailako Teknikaria; Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako edo Informatika Ingeniaritzako Gradua.**
- **Pakete ofimatikoa. Java eta JavaScript.**
- **Euskara eta ingelesa jakitea balioetsiko da.**

## Plazas Convocadas

Una plaza a partir de octubre de 2025, con una duración de 8 meses.

## Requisitos

- Técnico Superior en Administración de Sistemas Informáticos en Red (ASIR), en Desarrollo de Aplicaciones Multiplataforma (DAM) o en Desarrollo de Aplicaciones Web (DAW); Grado en Ingeniería Informática de Gestión y Sistemas de Información, o en Ingeniería Informática.
- Paquete ofimático. Java y JavaScript.
- Se valorarán los conocimientos de euskera e inglés.

# GGBB eta Antolaketa Saila. Plaza 1

## Sailaren helburuak

- **Politikak eta estrategiak zehaztea Giza Baliabideen garapenean, trebakuntzan, karrera-planetan eta laneko giroa hobetzeko planetan, eta konpentsazio-eredu ekonomiko eta sozialak garatzea.**
- **Antolakuntzako eta barne-komunikazioko ereduak garatzea eta ezartzea, enpresaren estrategia orokorrarekin bat etorriz.**

## Praktiken deskribapena

**Programan parte hartzen duenak Garapen eta Jasangarritasunaren arlo funtzionalean lagunduko du, eta zeregin hauek egingo ditu:**

# Departamento de RRHH y Organización. 1 plaza

## Objetivos del departamento

- Definir políticas y estrategias en materia de desarrollo de Recursos Humanos, formación, planes de carrera y de mejora del clima laboral, así como el desarrollo de modelos de compensación económicos y sociales.
- Desarrollo e implantación de modelos organizativos y de comunicación interna alineados a la estrategia general de la empresa.

## Descripción de las prácticas

La persona participante en el programa colaborará en el área funcional de Desarrollo y Sostenibilidad, realizando las siguientes tareas:

- **Urteko trebakuntza-beharren diagnostikoa egitea, trebakuntza-plana egitea eta trebakuntza-ekintzak planifikatzea.**
- **Eskumenen araberako kudeaketa-eredua ezagutzea eta aplikatzea.**
- **BPAren Erantzukizun Sozial Korporatiboaren estrategian parte hartzea eta beste erakunde batzuekin itunak egitea.**
- **Interes-taldeentzako ekitaldiak antolatzea, BPAko langileak eta haien familiak barne.**
- **Lan-harremanen eta lan-administrazioaren arloari laguntzea: presentzia kontrolatzea, nomina, lanpostuen balorazioa, aktak egitea, etab.**
- **Sailaren beste administrazio-lan batzuk.**

## Deitutako plazak

**Plaza bat, 2025eko urritik aurrera, 8 hilabeteko iraupenarekin.**

## Betekizunak

- **Lan Harremanetako, Psikologiako, Soziologiako, Zuzenbideko, Ekonomiako edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua.**
- **Informatika erabiltzaile-mailan (Word, Excel eta Powerpoint).**
- **Ingeles eta euskara maila altua.**

- Realización del diagnóstico anual de necesidades formativas, elaboración del plan de formación y planificación de acciones formativas.
- Conocimiento y aplicación del modelo de gestión por competencias.
- Participación en la estrategia de Responsabilidad Social Corporativa de la APB y búsqueda de alianzas con otras entidades.
- Organización de eventos destinados a los grupos de interés, incluyendo a las personas trabajadoras de la APB y sus familias.
- Apoyo al área de relaciones laborales/ administración laboral: control de presencia, nómina, valoración de puestos, elaboración de actas, etc.
- Otras labores administrativas del departamento.

## Plazas Convocadas

Una plaza a partir de octubre de 2025, con una duración de 8 meses.

## Requisitos

- Grado en Relaciones Laborales, Psicología, Sociología, Derecho, Economía o Administración y Dirección de Empresas.
- Informática a nivel de usuario (Word, Excel y Powerpoint).
- Nivel alto de inglés y euskera.

# Komunikazio Saila. Plaza 1

## Sailaren helburuak

- **Kanpo-komunikazioa: BPA portu berde, lehiakor eta arduratsu gisa kokatzea, proiektu gakoak eta haien eragina argi komunikatzea, ikusgarritasuna eta ospea handitzea eta beste erakunde batzuekiko aliantza sustatzea.**
- **Barne-komunikazioa: BPAko profesionalen arteko informazio-jarioa bermatzea, kide izatearen sentimendua areagotuz.**

## Praktiken deskribapena

**Programan parte hartzen duenak Komunikazio Sailan lagunduko du, eta zeregin hauek egingo ditu:**

# Departamento de Comunicación 1 plaza

## Objetivos del departamento

- Comunicación externa: Posicionar a la APB como puerto verde, competitivo y responsable, comunicar con claridad los proyectos clave y su impacto, incrementar la visibilidad y la reputación y fomentar la alianza con otras entidades.
- Comunicación interna: Garantizar la fluidez de la información entre los/as profesionales de la APB, incrementando el sentido de pertenencia.

## Descripción de las prácticas

La persona participante en el programa colaborará en el Departamento de Comunicación, realizando las siguientes tareas:

- **Komunikazio korporatiboko plana diseinatzen, planifikatzen eta gauzatzen laguntzea, kanpo- eta barne-komunikazioa barnean hartuta.**
- **Komunikazio-bideak aztertzea.**
- **Barne-komunikatuak prestatzea, newsletter-a egiten laguntzea, kanpoko komunikazio-agentziarekin harremanetan egotea.**
- **Sare sozialen analisia.**
- **Adierazleak neurtzea, komunikazioak interes-taldeetan duen eragina.**
- **Ekitaldiak antolatzea eta beste erakunde batzuekin harremanak izatea.**

### Deitutako plazak

**Plaza bat, 2025eko urritik aurrera, 8 hilabeteko iraupenarekin.**

### Betekizunak

- **Kazetaritzako, Ikus-entzunezko Komunikazioko, Publizitateko eta Harreman Publikoetako, Marketineko Gradua, Komunikazioko edo Humanitate Digital Globaletako Gradua; edo Marketin Digitaleko Masterra.**
- **Ingeles eta euskara maila altua.**

- Colaboración en el diseño, planificación y ejecución del plan de comunicación corporativa, incluyendo tanto la comunicación externa como la interna.
- Análisis de los canales de comunicación.
- Preparación de comunicados internos, apoyo en la elaboración de la newsletter, relación con agencia externa de comunicación.
- Análisis de redes sociales.
- Medición de indicadores, impacto de la comunicación en los diferentes grupos de interés.
- Organización de eventos y relación con otras entidades.

### Plazas Convocadas

Una plaza a partir de octubre de 2025, con una duración de 8 meses.

### Requisitos

- Grado en Periodismo, Comunicación Audiovisual, Publicidad y Relaciones Públicas, Marketing, Grado en Comunicación o Humanidades Digitales Globales; Máster en Marketing Digital.
- Altos conocimientos de inglés y euskera.

# Merkataritza eta Marketin Saila. ❶ Plaza

## Sailaren helburuak

- Salgaien/bezeroen trafiko berriak erakartzeko estrategiak definitzea eta garatzea, eta gaur egungoak leialtzea, merkataritza- eta industria-espazio berriak sustatzea, Portuaren lidergoa bultzatzea distantzia laburreko itsas trafikoan eta trafiko intermodalean, eta ozeanoz haraindiko konexioak indartzea. Bidaiarien trafikoa handitzea, bai ferryetan, bai gurutzaontzietan.
- Bilboko Portuak Iberiar Penintsulako iparraldeko eta Frantziako hego-mendebaldeko portu nagusi gisa duen zereginari eustea eta indartzea, eta bere hinterland logistikoa lurralde-eremu horietara guztietara hedatzea.
- Portuak herrialdearen ekonomiaren elementu estrategiko gisa duen garrantzia zabaltzea.

## Praktiken deskribapena

Programan parte hartzen duenak Merkataritza eta Marketin Sailean lagunduko du, eta zeregin hauetan lagunduko du:

# Departamento Comercial y Marketing. ❶ plaza

## Objetivos del departamento

- Definir y desarrollar las estrategias para atraer nuevos tráficos tanto de mercancías/cliente y fidelizar los actuales, promoción de los nuevos espacios comerciales e industriales, impulsar el liderazgo del Puerto en tráficos marítimos de corta distancia e intermodales, y reforzar las conexiones transoceánicas. Incrementar el tráfico de pasajeros, tanto en los ferries como en los cruceros.
- Mantener y reforzar el papel del Puerto de Bilbao como el principal puerto del norte de la Península Ibérica y sudoeste francés, extendiendo su hinterland logístico a la totalidad de estos ámbitos territoriales.
- Difundir la importancia del Puerto como elemento estratégico de la economía del país.

## Descripción de las prácticas

La persona participante en el programa colaborará en el departamento de Comercial y Marketing, dando apoyo en las siguientes tareas:

- **Merkatu-prospekzioari eta aukera berriei buruzko azterketak. Kanpo-merkataritzako txostenak egitea.**
- **Merkataritza-aurkezpenak eta merkatuaren eta aukeren azterketak egitea.**
- **Negozioaren garapena aztertzea. Adierazleak eguneratzea.**
- **Saileko beste lan batzuetan laguntzea.**

- Estudios de prospección de mercado y nuevas oportunidades. Realización de informes de comercio exterior.
- Elaboración de presentaciones comerciales y de análisis del mercado y oportunidades.
- Análisis del desarrollo del negocio. Actualización de indicadores.
- Apoyo en otras tareas del departamento.

## Deitutako plazak

**Plaza bat, 2025eko urritik aurrera, 8 hilabeteko iraupenarekin.**

## Betekizunak

- **Unibertsitate-titulua, ahal dela EAZkoa, Itsas Zuzenbidea eta Kanpo Merkataritza masterra.**
- **Goi-mailako informatika-ezagutzak izatea (Word, Excel, Powerpoint, Canva, Prezi).**
- **Ingeles maila altua.**

## Plazas Convocadas

Una plaza a partir de octubre de 2025, con una duración de 8 meses.

## Requisitos

- Titulación universitaria, preferentemente en ADE, Máster en Derecho Marítimo, Comercio exterior.
- Conocimientos de informática a nivel alto (Word, Excel, Powerpoint, Canva, Prezi).
- Altos conocimientos de inglés.

# Sistemak eta kudeaketa Kontrol Arloa. ❶ Plaza

## Sailaren helburuak

- **Portuko Agintaritzak Kalitateko, Prebentzioko, Ingurumeneko, Berrikuntzako eta Informazioaren Segurtasuneko Kudeaketa Sistema Integratu bat du (SGI), ISO 9001, 45001, 14001, 56001 eta 27001 arauei jarraikiz, hurrenez hurren. Halaber, BPAk AENORen Enpresa Osasuntsuaren ziurtagiria, EMAS erregistroko ziurtagiria eta trenbide-segurtasuneko sistema bat ditu. Gaur egun, lanean ari da Erantzukizun Sozial Korporatiboko IQNet SR10 ziurtagiria lortzeko.**
- **Aldi berean, prozesuetan oinarritutako ikuspegi baterantz doa, gaur egungoa osatuko duena, prozeduretan oinarritua. Hori dela eta, helburua da BPAren prozesu-mapa orokorra garatzea, prozesuen fitxa batzuk izateko. Fitxa horiek xedea, irismena, arduraduna, fluxu-diagrama, euskarri-dokumentazioa eta zerikusia duten adierazleak izan behar dituzte kontuan.**

## Praktiken deskribapena

**Programan parte hartzen duenak funtzio hauetan lagunduko du:**

# Área de Sistemas y Control de Gestión. ❶ plaza

## Objetivos del departamento

- La Autoridad Portuaria dispone de un Sistema de Gestión Integrado (SGI) de Calidad, Prevención, Medio Ambiente, Innovación y Seguridad de la Información bajo las normas ISO 9001, 45001, 14001, 56001 y 27001 respectivamente. Asimismo, la APB dispone de la certificación de Empresa Saludable por AENOR, la certificación en el registro EMAS y un Sistema de Seguridad de Ferroviaria. En la actualidad está trabajando en la obtención de la certificación IQNet SR10 en Responsabilidad Social Corporativa.
- En paralelo, está yendo hacia un enfoque basado en procesos que complemente al actual basado en procedimientos. Por ello, el objetivo es el de desarrollar el mapa de procesos general de la APB para disponer de unas fichas de los diferentes procesos que contemplen la misión, alcance, responsable, diagrama de flujo, documentación de soporte e indicadores relacionados.

## Descripción de las prácticas

La persona participante en el programa colaborará en las siguientes funciones:

- **Kudeaketa Sistema Integratuaren (KSI) mantentze-lanetan eta garapenean laguntzea.**
- **KSIren barruko eta kanpoko ikuskapenetan parte hartzea.**
- **Hobekuntza-ekintzen jarraipena eta kontrola egitea.**
- **Aginte Taula Integrala kudeatzea.**
- **BPAren prozesuen fitxak egiten parte hartzea.**

- Colaborar en el mantenimiento y el desarrollo del Sistema de Gestión Integrado (SGI).
- Participar en las auditorías tanto internas como externas del SGI.
- Hacer un seguimiento y control de las acciones de mejora.
- Gestionar el Cuadro de Mando Integral.
- Participar en la elaboración de las fichas de procesos de la APB.

## Deitutako plazak

**Plaza bat, 2025eko urritik aurrera, 8 hilabeteko iraupenarekin.**

## Betekizunak

- **ISOn oinarritutako Kudeaketa Sistema Integratuak ezagutzea.**
- **Prozesuetarako ikuspegian oinarritutako kudeaketa-sistemak ezagutzea.**
- **Auditore izateko prestakuntza eta Aginte Taula Integralaren kudeaketako ezagutzak baloratuko dira: helburu estrategikoen, operatiboen, ekimenen eta adierazleen kudeaketa.**
- **Microsoft Officeko tresnak ezagutzea, Visio barne.**
- **Euskara eta ingelesa jakitea balioetsiko da.**

## Plazas Convocadas

Una plaza a partir de octubre de 2025, con una duración de 8 meses.

## Requisitos

- Conocimientos de Sistemas de Gestión Integrados basados en ISO.
- Conocimientos de Sistemas de Gestión basados en el enfoque a procesos.
- Se valorará la formación como Auditor y los conocimientos de gestión de Cuadro de Mando Integral: gestión de objetivos estratégicos, operativos, iniciativas e indicadores.
- Conocimiento de herramientas de Microsoft Office, Visio incluido.
- Se valorarán conocimientos de euskera e inglés.

# Idazkaritza nagusia eta Lege zerbitzuak Arloa. Plaza ①

## Sailaren helburuak

- Bilboko Portuaren zerbitzu-eremuko portu-plangintzako politikak eta estrategiak definitzea, portu-espazioak emateko edo erabiltzeko, eta Portuko Erakundearen estrategia orokorrarekin onargarriak diren lege-ekintzak egiteko. Arlo juridiko-administratiboko funtzioak garatzea, eta arloei eta sailei laguntza eta aholkularitza legala ematea Bilboko Portuko Agintaritzaren jarduerak eta eskumenak garatzeko, bai zuzenbide publikoan, bai pribatuan, erakunde horiei ziurtasuna bermatzeko.

## Praktiken deskribapena

**Programan parte hartzen duenak Erregistro Orokorraren eta Administrazio Elektronikoaren Arloan lagunduko du, eta, besteak beste, zeregin hauek egingo ditu:**

# Área de Secretaría General y Servicios Jurídicos ① plaza

## Objetivos del departamento

- Definir políticas y estrategias de planificación portuaria en la Zona de Servicio del Puerto de Bilbao en orden a la concesión de espacios portuarios o la utilización de los mismos, y de acciones legales plausibles con la estrategia general del Organismo Portuario, desarrollando funciones del ámbito jurídico-administrativo, y brindando apoyo y asesoramiento legal a las diferentes Áreas y Departamentos en el desarrollo de las diferentes actividades y competencias de la Autoridad Portuaria de Bilbao, tanto en su esfera de derecho público como privado, en orden a garantizar la certidumbre jurídica de tales actuaciones para el organismo portuario y los administrados.

## Descripción de las prácticas

La persona participante en el programa colaborará en el Área de Registro General y Administración Electrónica, realizando principalmente, entre otras, las siguientes tareas:

- **Erabiltzaile eta/edo ikertzaileentzako arreta.**
- **Dokumentuen kudeaketa.**
- **Erakundearen artxiboa digitalizatzen laguntzea.**
- **Deskribapen artxibistikoa.**
- **Dokumentu-funtsak katalogatzen eta sailkatzen laguntzea.**
- **Sailkapen-taula dokumentu-kudeatzaileari eranstea.**
- **Saileko administrazio lanetan artxibatze eta laguntza lanak egitea.**
- **Artxiboaren berezko eginkizunekin zerikusia duen beste edozein jarduera.**
- **Saileko administrazio-lanetan laguntzea.**

Deitutako plazak

**Plaza bat, 2025ko urritik aurrera, 8 hilabeteko iraupenarekin.**

Betekizunak

- **Informazio eta Dokumentazioko Gradua; Dokumentazioko Lizentzia, Bibliotekonomia eta Dokumentazioko Diplomatura, Giza Zientzietako Lizentzia edo Gradua, edo Historiako Gradua.**
- **Ezagutza ofimatikoak: Informatika erabiltzaile-mailan (Word, Powerpoint, Excel eta Acrobat).**
- **Ingelesa eta euskara jakitea.**

- Atención a los usuarios y/o investigadores.
- Gestión documental.
- Colaboración en la digitalización del archivo de la entidad.
- Descripción archivística.
- Colaboración en la catalogación y clasificación de los fondos documentales.
- Incorporación del cuadro de clasificación al gestor documental.
- Otras labores de archivo y apoyo en tareas administrativas del departamento.
- Cualquier otra actividad relacionada con las funciones propias del Archivo.
- Apoyo en las tareas administrativas del departamento.

Plazas Convocadas

Una plaza a partir de octubre de 2025, con una duración de 8 meses.

Requisitos

- Grado en Información y Documentación, Licenciatura en Documentación, Diplomatura en Biblioteconomía y Documentación, Licenciatura o grado en Humanidades, o Grado en Historia.
- Conocimientos ofimáticos: Informática a nivel de usuario (Word, Powerpoint, Excel y Acrobat).
- Conocimientos de inglés y euskera.

# Bilbao PortLab. Plaza ①

# Bilbao PortLab. ① plaza

## Sailaren helburuak

- **Bilbao PortLab Bilboko Portuan berrikuntza-ekosistema bat sortzea helburu duen Bilboko Portua eta Itsasadarra Fundazioaren barruan integratutako berrikuntza- eta ikerketa-hub bat da, portu-enpresekin barruan sor daitezkeen proiektu berritzaileetan edo kanpoko proiektu berritzaileak erakartzen lan egiten duena. Era berean, aurkezten ari diren edo etorkizunean aurkeztu ahal diren bere berrikuntza planetarako finantzaketa-aukeretan parte hartzera eta aprobetxatzera ere gonbidatzen ditu.**
- **Start-up, ekintzaile eta enpresen eskura benetako proba-ingurune bat (living lab) jartzen du, prototipoak probatu eta garatzeko, Portuko enpresekin harremanak izateko, proiektuak garatzeko eta ekintzaileei laguntzeko gune bat eskaintzeko, horretarako, dagokien banakako lan-planak egiten.**

## Objetivos del departamento

- Bilbao PortLab es un hub de innovación e investigación integrado dentro de la Fundación Puerto y Ría de Bilbao, que tiene como objetivo crear un ecosistema de innovación en el Puerto de Bilbao, trabajando con las empresas portuarias en los proyectos innovadores que se puedan generar internamente o atrayendo proyectos innovadores del exterior; y les invita, asimismo, a participar y aprovechar las oportunidades de financiación para sus planes de innovación que se están presentando o puedan presentarse en el futuro.
- Pone a disposición de start-ups, emprendedores y empresas un entorno de pruebas real (living lab) para testar y desarrollar prototipos, facilitarles contactos con empresas del Puerto, aportar un espacio para desarrollar los proyectos y apoyar a los emprendedores, realizando los correspondientes planes de trabajo individualizados.

# Praktiken deskribapena

**Programan parte hartzen duen pertsonak Bilbao PortLaben lagunduko du, honako eginkizun hauekin:**

## Bilbao PortLab

**Pertsona gogotsu eta proaktibo bat nahi dugu, lortutako ezagutza gaur egungo datuei adimena eskaini nahi duena, eta Portuko berrikuntza-ekosistema sortzean balio handiagoa emateko erabili nahi dituena. Zehazki, eginkizun hauek izango ditu:**

- **Zaintza lehiakorrerako tresna bat garatzen laguntzea, joerak aztertuz, benchmarking-a eginez eta beste sektore batzuetan aplikatzen ari diren teknologiak ikertuz.**
- **Bilbao PortLaben berrikuntza-ekosistemaren datu-basea balorizatzea.**
- **Portuko komunitatea sentsibilizatzeko eta trebatzeko ekintzak garatzen laguntzea**

**Talde dinamikoa eta oso txikia gara, eta proiektuka funtzionatzen dugu. Beraz, praktiketan sartzen den pertsonak gure egunerokoan ditugun erronkak konpontzeko ideiak eta ekimenak aurkeztu beharko ditu.**

### Deitutako plazak

**Plaza bat, 2025ko irailetik aurrera, 9 hilabeteko iraupenarekin.**

### Betekizunak

- **MU - MYGADE gradua.**
- **Informatika maila ertain-altuan (Word, Excel, PowerPoint).**
- **Ingeles-maila ona izatea. Euskaraz jakitea baloratuko da.**
- **Proaktibitatea eta ekimena.**
- **Negozio-ikuspegia eta bokazio berritzailea.**

# Descripción de las prácticas

La persona participante en el programa colaborará en Bilbao PortLab apoyando el desarrollo de las siguientes funciones:

## Bilbao PortLab

Buscamos una persona entusiasta y proactiva que quiera aplicar el conocimiento adquirido en ofrecer inteligencia a los datos que actualmente tenemos, y poder dar más valor en la creación del ecosistema de innovación del Puerto. Concretamente, sus labores se centrarán en:

- Apoyar en el desarrollo de una herramienta de vigilancia competitiva analizando las tendencias, realizando benchmarking e investigando tecnologías que se están aplicando en otros sectores.
- Valorización de la base de datos del ecosistema de innovación de Bilbao PortLab.
- Apoyo en el desarrollo de acciones de sensibilización y formación de la Comunidad Portuaria.

Somos un equipo dinámico y muy reducido que funciona por proyectos, por lo que la persona que se incorpore a las prácticas deberá aportar ideas e iniciativas para resolver los retos a los que nos enfrentamos en nuestro día a día.

### Plazas Convocadas

Una plaza a partir de septiembre de 2025, con una duración de 9 meses.

### Requisitos

- Grado MU - MYGADE.
- Informática a nivel medio-alto (Word, Excel, PowerPoint).
- Conocimientos altos de inglés. Se valorarán los conocimientos de euskera.
- Proactividad e iniciativa.
- Visión de negocio y vocación innovadora.